



GIPUZKOA



ETA EUROPAR BATASUNA

64. INFORMAZIO BULETINA

> 2012ko Otsaila



GIPUZKOA



NABARMENDU BEHARREKOA

- > 2014-2020 epealdian egitura-funtsak programatuko dituen Marko Estrategiko Komuna aurkeztu berri dute

Europako Batzardeak 2014-2020 programazio-epealdirako Marko Estrategiko Komuna (MEK) berria aurkeztu du. Honen helburua Estatu kideak eta euren eskualdeetako finantza-plangintzaren lehentasunak zehazteko gida eskaintzea da.

Marko honen xedea, etorkizuneko bost funtsetarako (EGEF, EGIF, Kohesio Fondoa, FEADER eta EMFF) orientazio iturri bakarra eskaintzeaz gain, Batzardearekin estatu eta eskualde mailako agente bakoitzak etorkizunean sinatuko dituen lankidetzak akordioak prestatzeko oinarri izatea da. Eta guzti hau Europa 2020 estrategiari lotutako Europako hazkunde eta enplegu helburuekin bat eginez.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/regional_policy/what/future/index_en.cfm

- > EGEFen 7,1 milioi euro mugaz gaindiko lankidetzako Euskadiko proiektuetarako

Espainia-Frantzia-Andorra Mugaz Gaindiko Lurraldeko Lankidetzaren Programa Eragilearen Programazio Batzardeak (POCTEFA) programaren bigarren deialdiaren programazioa onartu du otsailaren 7ko bileran.

Orotara, Eskualde Garapeneko Europako Funtsak 30 milioi euroko laguntza bideratu du mugaz gaindiko 38 lankidetzako proiektuetarako. Horien artean, 22 proiektutan Euskadiko sustatzaileak aritzen dira, 7,1 milioi euroko programatutako zenbatekoarekin.

Informazio gehiago:

http://www.ogasun.ejgv.euskadi.net/r51-19239/es/contenidos/informacion/politica_regional/es_2340/adjuntos/proyectos-programados-2-convocatoria-POCTEFA.pdf



KOHESIO-POLITIKA

> Gipuzkoak Europar Batasunaren etorkizuneko Kohesio Politikari buruzko lan-jardunaldia parte hartu du

Pasa den martxoaren 14an, Gasteizen Europar Batasunaren 2014-2020 aldirako Kohesio Politika berriari buruzko lan-jardunaldia ospatu zen. Euskadin Europako funtsak kudeatzen dituzten hainbat erakundetako 40 kargu publiko eta teknikari parte hartu dute; hauen artean, Gipuzkoako Foru Aldundiko arduradunak, Eusko Jaurlaritzako eta gainontzeko Aldundietako kideak.

Jardunaldiaren helburua etorkizuneko Kohesio Politikari buruzko informazio eguneratua eta zuzena eskaintzea izan da. Halaber, bileran konfigurazio orokorrean eta etorkizuneko programa eragileen bitartez Europako eskualde-politikako aplikazioan izango diren azken berriak aurkeztu dira. Hori guztia, Euskal Autonomia Erkidegoan etorkizunean aplikatuko diren programa eragileak prestatzeko asmoz.

Jardunaldian Euskal Autonomia Erkidegoko 2007-2013rako EGEF Programa Eragilearen jarraipenenaren arduraduna den Batzordeko Regio Zuzendaritza Nagusiko (Eskualde Politika) Diego Villalba jaunak parte hartu du.

Informazio gehiago:

http://www.ogasun.ejgv.euskadi.net/r51-19239/es/contenidos/informacion/politica_regional/es_2340/futuro_pr.html

> 2014-2020rako Kohesio Politikaren Sinplifikazioa

Europako Komunikazio Batzordeak 2014-2020 Hainbat urtetarako Finantza Testuingururako, Europako administrazio-izapidea eta kudeaketa sinplifikatzeari buruzko onarpenaren garapen gisa, "2014-2020rako Kohesio Politikaren Sinplifikazioa" izenburupeko informazio-liburuxka berri bat argitaratu da.

Liburuxkan, Batzordeak, Europar Batasuneko egitura-funtsen kudeaketa-agintariei eta onuradunei, 2014-2020 aldirako Kohesio Politikaren sinplifikazio alorrean proposatutako hobekuntza praktikoa nagusiak azaltzen ditu.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/regional_policy/sources/docgener/informat/2014/simplification_en.pdf



> Laneko bilera Euskadiko Programa Eragileetako Aukera Berdintasunaren aplikazioa hobetzeko

Otsailaren 15ean, laneko bilera bat izan zen Gasteizen. Europar Batasuneko Egiturazko Funtsek kofinantzatutako (EGIF eta EGEF) Euskadiko Programa Eragileen parte diren jarduera-proiektu eta -programetan Aukera Berdintasun printzipioaren aplikazioa hobetzearekin lotutako bilera izan zen.

Lan-jardunaldira Euskadin aplikazio-esparru horretan lan egiten duten teknikariak, EBko EGIF eta EGEF egitura-funtsek finantzaturako programa operatiboetako teknikariak eta genero-berdintasun arloko politiken ezarpena eta jarraipena egiten duten teknikariak joan ziren.

Euskadiko administrazio desberdinetatik eta beste erakunde batzuetatik, garapen-agentzietatik eta erakunde laguntzaile batzuetatik etorritako parte-hartzaileen artean, Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkariak ere izan ziren bertan.

Informazio gehiago:

http://www.zuzenean.euskadi.net/s68-contay/es/contenidos/informacion/politica_regional/es_2340/adjuntos/presentacion-estrategiaFSE-FEDER.pdf



EUROPA 2020 ESTRATEGIA

> Laguntza Europako ETE-ei

Europako Batzordearen gida berria; horren helburua Europako enpresa txikientzako eta handientzako Europako programa berriak aurkeztea da.

Batzordeak ETE-ei modu desberdinetan ematen die laguntza: diru-laguntzen, maileguen eta bermeen bidez, besteak beste. Laguntza horiek ere finantza-izaerarik gabeko hainbat laguntza-tresnak izan ditzakete, hala nola programak eta laguntza-zerbitzuak.

Ildo horretatik, Europako ETE-ek Egitura Funtsetatik (Eskualde Garapeneko Europako Funtza –EGEF- eta Europako Gizarte Funtza –EGIF-) lortzen dituzte finantza-tresna onenak; horretarako, eskualdeetan aplikatutako komunitateko ekimenak eta programa tematikoak erabiliko dira.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/enterprise/newsroom/cf/_getdocument.cfm?doc_id=7273



DOKUMENTU INTERESGARRIAK

> Merkatu Bakarrak kohesio-politikan, hazkundean eta lehiakortasunean duen eragina

Europako Batzordeak azterketa bat argitaratu du eta bertan aztertu dute Merkatu Bakarrak Europar Batasuneko hazkundean, lehiakortasunean eta enpleguan sortzen duen desberdintasuna eta bateratasun-eza.

Txostenak ondorio hauek ateratzen ditu: kohesio-politikak Europa2020 Estrategiarekin duen egokitzapena, eskualdeek Merkatu Bakarrean duten txertatze maila, eskualdeen zeregina, inbertsio publikoaren kalitatea, baita testuinguruko baldintzak ere; gainera, gobernantzako erronkei heltzen die.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/regional_policy/sources/docgener/studies/pdf/single_market/single_market_report.pdf

> Eskualdeko lehiakortasun-indize berria: Teoria, metodoa eta emaitzak

Europako Batzordearen Eskualde Politikaren Zuzendaritza Nagusiak argitaratutako "Laneko dokumentuak" bildumak, otsaileko alean, EBko eskualdeko lehiakortasuna neurtzeko adierazle berria aurkeztu du.

Proposatutako adierazle berriak EBko 27 estatu kideetako NUTS-2 eskualde bakoitzerako lurralde-lehiakortasunaren ikuspegi sintetikoa eskaintzen du. Hiru taldetan bildutako hamaika ardatz ditu:

Oinarrizko gaiak, ikerketa eta berrikuntza. . Ardatzek enpresekin lotutako oinarrizko gaiak neurtzeaz gain, eskualde horietan bizi direnekin eta haien bizitza-kalitatearekin lotutako gaiak ere neurtzen dituzte.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/regional_policy/sources/docgener/work/2011_02_competitiveness.pdf



> Emakumeak erabakiak hartzeko postuetan

Europar Batasuneko azken txostenek erakusten dutenaren arabera, erabakiak hartzeko postuetan emakumeen presentziari dagokionez aldeak daude, bai enpresa alorrean, bai Administrazioan.

Zehazki, Europako enpresa nagusietako administrazio-kontseiluetako zazpi kidedatik bakarra da emakumea (% 14). Datu hori 2010eko datua (% 12) baino zertxobait hobea da, baina oraindik gizon eta emakumeen arteko oreka nabarmena lortzetik oso urrun gaude (bi sexuetako % 40 gutxienez, Batzordearen arabera). Herralde kideen arteko aldeak handiak dira: % 27 ingurukoak Finlandiako enpresen kasuan, eta % 5 artekoak, Malta, Zipre edo Hungarian, adibidez.

Eurobarometroaren arabera, Europako iritzi publikoa zalantzarik gabe egoera aldatzearen alde dago: Europarren % 88k uste dute eskumen berdinekin emakumeek modu ekitatiboan ordezkaturata egon behar dutela enpresetako erabakiak hartzeko postuetan. Inkesta egindako herritarren % 75 gai horri buruzko legedi baten alde daude.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/justice/newsroom/gender-equality/news/120305_en.htm

> Europar Batasuneko jarduera 2011n

Urtean zehar EBko lorpen eta ekimen nagusiak berrikusten diren Europako Batzordeko urteko txostena.

Edizio honetan, beste alor batzuen artean, 2011n gauzatutako gobernantza ekonomikoko erreformak aurkezten dira, finantza-krisiari erantzuteko. Horrez gain, beste alor batzuetan hartutako neurriak ere aurkezten dira.

Informazio gehiago:

http://europa.eu/generalreport/pdf/rg2011_en.pdf